


# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 264. alea - 2021eko uztaila



**Josu Salegi**   
**bizitza jazzaren bueltan**






**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

MAKILATARIO  
EUSKAL  
OKELA

GANBE DE BURGUNDIA  
DE CALIDAD  
DEL PAIS VASCO  
EUSKO LABEL



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**Calbeton**




JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 beheka - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**BURU - ZURI**  
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Arakistain plaza, 2 beheka - DEBA  
Tel.: 943 19 22 63  
www.atarideba.com



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



# AURKIBIDEA

5

## KOLABORAZIOAK

Karmelo Urdangarin  
eta euskararen  
loturaz,  
Joxemari Altzibar



7

## ALBISTEAK

Urrea boccian  
Amagoia Arrietak;  
Xabi Osa kirolaria  
CrossFit Games-en



10

## ELKARRIZKETA

Josu Salegi Jazzez  
Blai-ri buruz eta  
inprobisazioaz,  
irakaskuntzaz...



13

## ELKARRIZKETA

Goizane Aizpurua  
"Izarak"  
idatzi duen lehen  
eleberriaz



14

## ALBISTEAK

Zuhatza Euskara  
Elkartearen aldeko  
bertso saioa egin zen  
zumardiko karpan



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

### ARGITARATZAILEA



### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saibunordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Martin Lores

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria 3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)

[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)

egin zaitez  
zuhatzakide!

Urte guztiko bazkietza  
30 euroren truke

*zaindu maite  
dugun herri*

[www.labur.eus/Zuhatza\\_EginBazkide](http://www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide)

Zuhatza euskara elkarte



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## “Elkartu gera”; ikasi eta ospatu dugu. Mila esker!



Berriz ere, oso gustura gaude “Osasunaren beste begirada bat II. Elkartuko gera?” lemapean antolatutako bigarren zikloak izandako harrerarekin. Hainbat hitzaldi eta tailerrek osatu dute bigarren hau ere, baina oraingoan, lehenengo saioarekin alderatuta, naturan izan dira saio guztiak, eta saio praktikoa nagusitu dira gainera, eta hori guztia, egungo egoeran, benetan eskertu diguzue gerturatu zaretenok. Guk, era berean, nola ez, inguratu zineten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu,

zuekin elkartzea eta naturan gure naturaz ikasi eta gozatzea kristorena izan delako!

Hunkigarri eta ederrak izan ziren bereziki ekainaren 21ean solstizioa ospatu eta udari hasiera emateko karpn egindako ekimenak. Bizipoza!

Baina, lehen esan bezala, dena ez da ospakizun hutsa izan; asko ikasi dugu gure sistema immunologikoa, elikaduraz, arnasketaz, pentsamendu eta emozioez, gure arbasoen sendabelarrez... Heriotzari beldurra galtzeko eta espe-

rientziak partekatzeko aukera ezin hobea ere izan dugu; eta pentsaera bakarraren garai ilunotan, Covidaz edo txertoez hedabideek zabaltzen ez dituzten hainbat ikerketa eta informazio interesgarriren berri ere izan dugu, erabakiak beti geureak izan daitezzen.

Elkarrekin ureztatu dugu, eta dagoeneko hasiak gara gure Osasun Hazia erretzen ikusten.

Laster izango dugu berriz elkarren berri.

*Osasun Haziak Taldea*

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

**L&K Home**

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • [inmolkhome@gmail.com](mailto:inmolkhome@gmail.com)

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

**943 191 383**

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

**Zumardi**  
pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)

**ORAIN**  
ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

**LABATAI**  
taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
06:00ETATIK AURRERA  
PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
ETA PLATER KONBINATUAK,  
EGUN OSOAN ZEHAZ



## Karmelo eta euskara

Orrialde hau baino leku gehixeago beharko genuke Karmelok hezkuntza eta euskararekiko izan zuen giza konpromisoaren laburpentxo bat egiteko. Baina denborak ahantzazten dizkigun jarduera militante haiek gogoratzea legezko zaigu orain. Ezagunak dira Ostolazaren testamentuaren kudeaketan parte hartu zuela, Debari buruz idatzitako liburuak, Debako zentral nuklearraren kontrako mugimenduaren sortzailetako bat izan zela, eta abar.

Agian, ezezagunagoa izango da, ordea, bere hezkuntza eta euskararekiko konpromisoa; bai, euskararekiko! Aspalditxo heldu zion hezkuntzarekikoari, eta aurrerago euskararekikoari.

Herriko gazteen ikasketen ardura ez zuen oraintsukoa. Debako gazteen hezkuntzaz eta etorkizuneko beharrez jabetuta, Lanbide Heziketako eskolaren alde buru-belarri jardun zen Karmelo. 1959ko apirilean, Fco. Ostolazak "Centro de Jóvenes" ordezkatzan zuten Jose Luis Gorostidi, Fco. Aldabaldetretu, Karmelo Urdangarin eta Jesus Ulaziaren esku utzi zuen Ostolaza eraikina, haiek irakaskuntzarako erabil zezaten. Horri esker sortu zen Lanbide Heziketako Eskola; 1960ko abenduaren 21ean hasi zena martxan, eta 1972-1973 ikasturtean itxi zena.

Handik hainbat ikasle Unibertsitate Laboral, Eskola Politekniko eta Eskola Profesionaletara heldu ziren.

Jarduera profesionala (Industria Kooperatiban) ez zuen oztopo izan, guraso legez, hezkuntza aurrerakoia eta euskararen normalizazioaren aldeko borrokan buru-belarri aritzeko. Beraz, guraso talde sendo baten buruan ikusi genuen Eskola Publikoan



euskara ezartzeko ahaleginetan 1976-1977 ikasturtean. Colegio Nacional Ostolaza hartan euskara eta euskaraz irakastea zuen helburu, eta hori ez zen txantxetako lana "Colegio Nacional" izateak berarekin zekarren historia eta konnotazioarekin... Izan ere, bertako zuzendaritza, irakasle eta guraso askorentzat, euskara minbizia zen.

Horrela, Gipuzkoako Eskola Nazionaletako Guraso Elkartearen Antolakuntzako buruetako bat izan zen Karmelo. Eta elkarte horrek ahalbidetu zuen "Comisión de Bilingüismo" izeneko, Eskola Nazionaletan euskara irakats zedin. Karmelo, Juantxo Arteaga eta Nati Las Heras gorputz eta arima aritu ziren Gipuzkoako Eskola Nazionaletako Guraso Elkartearen mugimenduan euskara ardatz izan zedin.

Baina eskola barnean sortutako borroka gogorra izan bazen, ez zen makalagoa izan sortu berri zen Eusko Kontseilu Nagusiarekikoa (Consejo General Vasco). Euskaraz zekiten irakasleen gabeziak, hots, irakasle taldea euskarako D titulua zutenekin osatzeko zailtasunak, etengabeko istiluak sortu zituen bai eskolan, baita Eusko Kontseilu Nagusian ere. Azkenean, Eusko Kontseilu Nagusiak guraso elkarteek eskatzen zuten elebitasuna bete ahal izateko "idoneo" figura sortu behar izan zuen.

Horrela, Ostolaza Ikastetxean gutxika euskara eta euskarazko irakaskuntza hedatzen joan bazen, guraso talde sendo baten eta Karmeloren lanari esker izan zela esan genezake.

Eskerrik asko, Karmelo. Ez adiorik.

*Joxemari Altzibar*

## Ia-ia ez naiz ausartu

"Askorentzat urteak dituen 365 egunetako bat gehiago besterik ez da izango. Beste batzuentzat egun berezia da ekainaren 28a. Zalantzak nituen testu hau idatzi edo ez. Agian ez nago behar beste harro naizenaz. Edo agian beldur naiz". Horrela hasten zen ekainaren 28an idatzi nuen testua. Arrazoi nuen. Iritsi zen testua bidaltzeko eguna, uztailearen 1a, eta ez nintzen bidaltzera ausartu. Gaur goizean esnatu naizenean irakurri dut berria. 24 urteko gazte bat hil dute bere orientazio sexualagatik Galizian. Eta orduan konturatu naiz ezin nuela testu hau ez bidali.

Guri eragiten ez diguten kontuak dirudite, baina larunbatean nire lagun batek duela aste batzuk Madrilgo metroan lesbiana izateagatik jasan zuen erasoak kontatu zidan. Urruneko kon-

tuak dirudite, baina duela egun batzuk Donostiako gazte batzuei Twitch plataformako kanala itxi zieten zenbat homosexual hil zitzaketen esanez bideo bat igotzeagatik. Beste garai bateko kontuak dirudite, baina Samuel atzo hil zuten, 2021eko uztailearen 3an.

Gorrito mezuek indar handia hartu dute azken urte hauetan. Politikan duela urte asko desagertuak uste genituen ideiak itzultzen ari dira, komunikabideek ahotsa ematen diete eta herritarrok pairatzen ditugu kalteak. Ia-ia ez naiz testu hau bidaltzera ausartu. Esango zenutenaren beldur nintzen, pentsatuko zenutenaren beldur. Baina uste dut beldur hori bera dela testu hau bidaltzeko arrazoi nagusia. Isilik geratzen bagara inoiz ez garelako beldurrik gabe biziko.



**JON  
AMUTXASTEGI**

iritzia



Estibaliz Beltran de Heredia

Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna

# Liburu artean

Jarraian dituzue azken hilabeteotan euskaraz argitaratutako hainbat liburu; bertan jasota daude 0-4 urteko haurrentzat, 5 urtetik gorakoentzat, 6-8 urtekoentzat, 8-10 urtetik gorakoentzat, 10-12 urtekoentzat, gazteentzat zein helduentzat kaleratutako zenbait. Gure katalogoan, ordea, liburuez gain aldizkariak, diskoak eta filmak ere aurkituko dituzue. Hauxe da

katalogoan sartzeko webgunea: [www.liburubila.euskadi.eus](http://www.liburubila.euskadi.eus).


Gogoan hartu liburutegia udan ere zabalik dagoela. Irailaren 3ra bitartean ondoko ordutegian irekiko da liburutegi orokorra: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara / haur eta gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00etara.

Uda on!

## HAURRAK / GAZTEAK



**Ezetz harrapatu!** (Hector Dexet). Ttartalo. 0-4 urte




**Arrautza** (Elena Odriozola). Ediciones Modernas. El embudo. 0-4 urte




**Mara** (Nerea Hernández). Begiko. 5 urtetik aurrera




**Galaxien umea** (Blake Nuto). Ttartalo. 6-8 urte




**Amonarenean kea** (Ana Ibañez). Liburu iletsuak. 6-8 urte



**Galtzaundi, galtzamotz eta galtzajario** (Antton Kazabon). Erein. 8-10 urte



**Xeherlock detektibea** (Sebastien Perez). Ibaizabal. 8-10 urte



**Hiru gara, baina niri bost!** (Enara Garmendia). Erein. 10-12 urte



**Txano eta Oscar. Lurpeko bizilagunak** (Julio Santos). Xarpa Books. 10-12 urte



**Maitasuna zailegia da** (Andrés Guerrero). Begiko. 12 urtetik aurrera



**Hormak** (Oihana Iguaran). Elkar. 12 urtetik aurrera




**Itsasoaren atea** (Miren Agur Meabe). Harriet. 12 urtetik aurrera


## HELDUAK



**Taxiak ez dira inoiz gelditzen** (Xabier Montoia). Susa.




**Epizentroa** (Nerea Loliola). Erein.



**Izarak** (Goizane Aizpurua). Alberdania.




**Solasaldia Sizilian** (Elio Vittorini). Igela.




**Bidea eta zauria. Sei poeta (2000-2019)**. Balea zuria.




**Doneaneko alaba** (Juan Kruz Igerabide). Alberdania.




**Jende normala** (Sally Rooney). Alberdania.



**Nanogune: txikiaren xarma** (Elixabete Garmendia). CIC nanogune.



**Jules jauna** (Aurélien Ducoudray). Harriet.



**Garen hori. Tradizioaren eta etorkizunaren artean** (Ana Urkizu). Elkar.



**Harrigarri eta miragarri: jostailuzko entziklopedia bat itxialdian.** Media Vaca.



**Esperimentazioan sakonduz biziberritu** (Larraitz Esnaola). Xangorin SL.



## Hirugarren aldiz, urrea lortu du Amagoia Arrietak Espainiako Boccia Txapelketan



Hirugarren aldiz jarraian, Amagoia Arrieta jokalariek 2021eko Espainiako Boccia Txapelketan urrezko domina eskuratu du, BC1 kategorian.

Rivas Vaciamadrid izeneko Madrileko herrian jokatu zen lehia, ekainaren 26 eta 27ko asteburuan. Larunbateko saioan domina-aukerak zaildu zitzaizkion Sergio Gutiérrez kanbriarraren aurka ustekabean galdu eta

gero, baina igandean Arrietak Francisco Bautista Fernández Alikanteko promesa gaztearen aurka irabazita, finalerako txartel zuzena eskuratu zuen.

Finalean, bere jokorik onena erakutsi zuen Desirée Segarra Loki Rie txapeldun handiaren aurka. Oso sendo agertu zen distantzia laburreko defentsan eta erabat eraginkor lutzerako jokoan (8 metroz gora). Espainiako selekzioko bi jokalariek final ikusgarria jokatu zuten, bertaratu zirenei ikuskizun ederra eskainiz.

Azkenean, Arrieta nagusitu zen 3-1 emaitzarekin, eta podiuma Granadako Álvaro Ballesteros Cascalesek osatu zuen.

Horrela, Arrieta Espainiako boccian Estatuko titulu gehien dituen emakume bihurtzen da. Horrez gain, hiru txapelketa jarraian irabazita (2019, 2020 eta 2021) balentria gogoangarria egin du Arrietak.

## Xabi Osa CrossFit Games-erako sailkaturik, kirol egokitan munduko onenen artean

Uztailaren 26an AEBetan CrossFit Games 2021 txapelketa jokatu da eta Xabi Osa mundu mailan klasifikatu den bost atletetako bat izan da. Soilik bost atleta klasifikatu daitezke mundu mailan "adaptive" kategorian eta Osa dugu horietako bat, Euskal Herri eta Espainia mailan bakarra. Gogor dabil crossfit-ean entrenatzen azken urteotan Osa eta kirol-entrenatzaile ere bada.

Ez da Osa horrelako txapelketa batean sailkatzen den lehenengo aldia. 2019an, esate baterako, Miamin jokatu zen crossfit-eko Wodapalooza nazioar-

teko txapelketa sonatuan ere sailkatu zen. Bertan, desgaitasunen bat duten diziplina honetako munduko hamabost kirolaririk onenek hartu zuten parte eta Osa hamargarren sailkatu zen.

Kasu honetan, AEBetako txapelketan parte hartzeak ekarriko dizkion gastuei (hiru asteko egonaldia eta hainbat hegaldi) aurre egin ahal izateko finantziarioa lortzeko, Osak kamisetak atera ditu 17 euroan (5 euro gehiago bidali beharko balitz). Deba, Durango edo Zarautzen jaso daitezke. Harremanetarako jo Xabi Osaren Facebook orrira.

## Manuel Mateos Memoriala azaroan egingo da, bi urteko etenaldiaren ostean

Deba Xtrem Kirol Taldeak jakinarazi du datorren azaroaren 6an (larunbata), 16:30ean, Manuel Mateos Memoriala ospatuko dela berriz ere Deban, Covid-19aren eraginez bi urteko geldialdia izan ostean.

Aurtengo memorialak 8,4 kilometro-

ko ibilbidea izango duela iragarri dute antolatzaileek. Hitzorduaren inguruko xehetasunak aurrerago zehaztuko dituzten arren, dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Parte hartu nahi dutenek [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web-orrira jo beharko dute.



LUKAX DORRONSORO

### Gorabeherak

Ametsetako bizileku gertatu zaigu Deba kanpotik etorriak garenok. Mendi eta ibar, itsaso eta ibai, hondartza eta harkaitz...

Munduan izango du antzekorik, baina atseginagorik nekez, mugakide zaigun Mutriku lagun.

Errotazarreko zubia egin zutenetik, ohiko ibilbide dut futbol zelairainokoa. Gune zoragarria, baratza, jolastoki eta parketxo basatiz osatua.

Zenbat eta tokia ederrago orduan eta nabarmenago eta desatseginago azaltzen dira, ordea, lekuan lekuko ezbehar eta akatsak ere. Hala gertatu zitzaidan niri aspaldi, futbol-zelai ingurura lehenbizikoz hurbiltzean. Handik zetorkidan entrenatzaile eta jokalarien arteko hitz-istilu ozena gaztelaniaz baitzen erabat, jokalariek gehienak euskal eskolako ikasle izan arren.

*Bihotzean min dut, min etsia,  
negar isila darion mina...*

Lizardiren olerkia oroituz alde egin nuen. Futbol-zelaitik aparte ibiltzen ahalegindu nintzen ordutik.

Duela pare bat urte zubi zaharrak "krak" egin zuen. Konponketak zailtasun bereziak zituela eta, burdinazko egitura batetik zintzilikatu zuten. Jendeak horren gaintik ibili behar izaten du, eskaileratzarrak igo eta jaitziz. Egun, zaila da ulertzen...

Bada urtebete futbol-ariketei so egoten naizela berriz, euskarazko solasa entzun eta jolasa gozatzen. Txalo egungo entrenatzaile eta jokalariei! Bestalde, zubi zaharrean ganoraz ari dira konponketa-lanetan eta badi-rudi laster desagertuko dela tramankulu itsusi eta lotsagarria. Beraz,

*Gabiltzan kalez kale  
umore onean.*

## Zubiaren historia eta zaharberritze lanen erakusketa ikusgai



Debako zubiaren historia eta zaharberritze lanen inguruko erakusketaren inaugurazioa egin zen uztailaren 7an, Anes Arrinda pasealekuan. Deba eta Mutrikuko udal ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta lanen arduradunak izan ziren bertan.

Zubiaren ondoan dagoen erakusketak horrek fabrikako zubien munduan sartuko du ikuslea, herriko ondarea ardatz hartuta. Erakusketak bere proiektugilearen (Jose Antonio Cortazar) irudia, historia, larrialdi-faseak, egungo berreraikuntzaren faseak eta harrizko zubien eraikuntza-ezaugarriak hartuko dituen ibilbidea proposatzen du. Informazio guztia multimedia informazioarekin eta Debako zubi beraren maketa ikusgarri batekin osatu da.

## Momentuz behintzat ez da zabalduko Artzabalgo hilerria

Debako Udalak jakinarazi du hilerri berria zabalteko egiten ari diren lanetan hainbat hutsune eta arazo antzeman dituztela teknikariek, eta, hortaz, momentuz behintzat ez dela zabalduko.

“Okerrik ezean, ekainaren 30ean zabalteza adostu zuten udalbatzako hiru taldeek, baina ordutik honako bidean hainbat arazo antzeman dira, eta horiek konpontzeko beharrezko bitartekoak jartzen ari badira ere, gaur-gaurkoz, hilerriak ez ditu erabilgarri egoteko baldintza teknikoak betetzen”, azaldu du. Hori horrela, Debako udalbatza osatzen duten hiru taldeek ekainaren 28an gaia aztertzeke egin zuten bileran erabaki zuten momentuz ez dela hilerri berria zabalduko, irekiera “segurtasun berme guztiekin” egin nahi dutela argudiatuta. Ez dute zehaztasun gehiago eman.

## Ramon Zuriarrainen artelanak ikusteko aukera dago elizako klaustroan

Uztailaren 3an inauguratu zen Debako Santa Maria elizako klaustroan ikusgai dagoen Ramon Zuriarrainen (Donostia, 1948) erakusketa.

1970. urtean euskal artearen noranzkoa aldatuko zuen artista belaunaldi berri bat sortu zen aurreko artistek (Chillida, Oteiza, Balerdi, Sistiaga, Zumeta...) ezarria zuten nolabaiteko ortodoxiaren aurka egin zuena. Zuriarrain horietako bat izan zen; belaunaldi horrek arte figuratiboari garrantzi handiagoa eman zion, eta irekita zegoen adierazpen espresibo popularretara (komikia, ilustrazioa edo zinema kasu), baina aurreko surrealismo, abstrakzio informalista eta pop art-ari aterik itxi gabe.

Hasierako urte haien ostean bakoitzak bere bidea jarraitu zuen. Zuriarrain, aurrerantzean egindako bidean, ez da estilo bakarrera mugatu, eta guztietan ere nabarmena da artistaren originaltasun eta maisutasuna. Bere lanak ukitu surrealistako figuratibismo delikatutik abstrakzio oso libre baterako bilakaera izan du; oso koloretsu eta konplexua batzuetan, ilun eta minimalista besteetan.

80ko hamarkadak eraldaketa ekarri zion. Margolaria naturarekin sakon identifikatzen da, eta errepikatzen den



gaia da, baina ez bakarra. Garai hartan erakusketa ugari egin zituen.

90 eta 2000ko hamarkadetan, bere pintura sendotu zuen, eta bakarkako erakusketak egin zituen Euskal Herri, Espainia eta Europako hainbat lekutan. Horrez gain, Zuriarrainen lana bilduma publiko eta pribatuaren parte da. Ikusgai dago Gasteizko Artiumen, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Donostiako San Telmo museoan edo Madrilgo Reina Sofia museoan, besteak beste.

### Uztailean eta abuztuan ikusgai

Erakusketa uztailean eta abuztuan izango da ikusgai elizako klaustroan. Uztailean asteartetik igandera bitartean egongo da zabalik, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Abuztuan, berriz, egunero, elizaren ordutegian.

## “Aniztasuna ospatuz, LGTBIQfobiarik ez” aldarria ekainaren 28aren bueltan



Ekainaren 28an LGTBIQ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna izanik, bezperan, goizean bi banku margotu zituzten herritarrek estalitako pasealekuan, eta eguerdian elkarretaratzea egin zen Foruen plazan. Eguraldiarengatik ez ziren aurreikusitako moduan Aldats frontoiaren kanpoaldeko murala eta beste hainbat banku margotu. Hori dela eta, uztailaren 2rako deialdi berria egin zen eta murala eta beste bi banku margotu zituzten. Era berean, adierazpen instituzionala onartu zuten Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak. Bertan, LGTBIQ kolektiboaren eta pertsona ugariren borroka luzea aitortzearekin batera, hainbat konpromiso hartu zituzten; testua [www.deba.eus](http://www.deba.eus) web-orrian dago irakurgai.



## Musika Bandak eta kiroldegiak emanaldi berezia eskainiko dute elkarlanean



Koronabirus garaiak gogor jo du kultur mundua, baina iazko udaran bertan behera gelditu ziren zenbait emanaldi berreskuratzen ari dira aurten herriko hainbat eta hainbat eragile.

Besteak beste, Debako Musika Bandak eta kiroldegiak, elkarlanean, eta Udalaren laguntzarekin, uztailaren 23an (ostirala) emanaldi berezi bat eskainiko dute Euskal Jolas pilotalekuan, 22:00etan.

Euskadiko Down Sindromearen

Fundazioarentzat dirulaguntza lortzea da ikuskizunaren helburu nagusia. Gaur egungo egoera dela eta, aforoa mugatua izango da. Sarrerak turismo bulegoan egongo dira salgai 10 euroan, eta bertan lortutakoa fundazioarentzat izango da oso-osorik.

Bandako kideen esanetan, emanaldi berezia izango da hilaren 23koa. "Ez da ikuskizun soil bat izango, ezberdina izango da. Herriko 30 pertsona inguru txirrindu gainean ikusiko ditugu spinning irakasleen gidaritzapean, eta emanaldian zehar Bandak jotako abesti eta erritmo ezberdinak jarraitu beharko dituzte: musika klasikoa, pelikuletako abestiak, erritmo latinoak, euskal musika...", aurreratu dute.

Ekitaldiari buruzko informazio gehiago Debako Bandaren eta Udalaren sare sozialetan dago eskuragarri.

## Abian da *Iturri Ondoan-en* edizio berri bat



Euskal kulturaren transmisioaren lanarekin jarraitzeko asmoz, Udalak zortzigarrenez *Iturri Ondoan* ekimena antolatu du, hainbat eragile eta herritarren parte-hartzearekin. Uztailaren 2an abiatu ziren ekimenak eta 30era arte iraungo dute, betiere ostiraletan, zumardiko karpian. Musika, antzerki, dantzaz... gozatzeko aukera izango da, beraz, bertan.

*Iturri Ondoan* programaren helburuetako bat euskaraz egiten den kultura ezagutaraztea da, kanpoko jardueren bitartez, baina baita bertakoekin antolatutakoen bidez ere. Eta arreta berezia jartzen da euskaraz sortzeko prest dauden herritarrengan, kultura eta artea bitarteko hartuta, euskaraz harreman-sare berriak jostea delako *Iturri Ondoan-en* beste helburu garrantzitsu bat.



Uztailaren 2an "Arineketan" (tradiczio berritua) dantza saioarekin abiatu zen programa. Uztailaren 9ko ikuskizunak, dantzari bertsoa ere gehitu zion "Errimak bi oinetan" izenburupean. Hirugarrena, berriz, uztailaren 16an, "Begiradak" izan genuen, herriko sortzaileen elkarlanaz osatutako ikuskizun berezia.

Horiek orain artekoak, aurrerantzean, oraindik, beste bi ikuskizun izango baitira. Uztailaren 23an "Ez dok Ero" antzerkia izango da ikusgai, eta uztailaren 30arekin, ostera, Willis Drummond musika taldeak kontzertua eskainiko du.

Azken bi ekimenak izan ezik, doakoak izango dira emanaldiak. Bi emanaldietarako bonoa 15 euroan eros daiteke. Sarrerak salgai daude turismo bulegoan.



ARANTZA IRIONDO

### (ZU) ZARA

Ezer baino lehen, esan behar dut etiketak irakurtzeko ohitura daukadala. Internet bidez erosten dudanean ere, arropa saskira eraman baino lehen konposizioari begiratzen diot: zenbat kotoi duen, zenbat elastane, ikuzgailuan garbi daitekeen, zenbateko tenperaturan... Askotan modari jarraitu baino neure erosotasunari erantzuten dion begiratzen diot.

Martxoaren hasieran, herritik ateratzeko debekua zela eta, praka batzuk ekarri zizkidan alabak ZARA denda erraldoian erositakoak. Beti bezala, probatu ondoren etiketa multzo luze eta "traba egileari" erreparatu nion hura moztu aurretik kontuan hartu beharreko oharren bat ote zegoen begiratzeko. Horretan nobilela eta guraizeak eskuan nituela, hara non konturatzen naizen etiketako oharrek euskaraz ere badaudela: Bangladeshen egina, kotoia, elastomultiesterra, elastanoa... Euskara 17 bat hizkuntzaren artean! Kontuan hartuta munduan 6000 hizkuntzatik gora daudela, ez dago gaizki!

Bai, badakit, ZARAko arropa gehiena hirugarren munduko herrialdeetan ekoizten da eta bertako langileen lan baldintzak eskasak dira, herrialde horietatik produktua ekartzeak ikaragarriko kutsadura sortzen du eta berotegi efektua handitzen, gure herrietako arropa denda txikiak desagertzen ari dira multinazionalen erruz...

Baina nik hemendik aurrera ZARAn, CORTEFIELen... erosten dudanean gogoan izango dut (baita ere) euskarak (ere) baduela etiketetan (ere) tokia, eta azkeneko lekuan egon arren, hor egoteak mesede baino ez diola egiten, errazago topatzen baita.



## JOSU SALEGI musikaria

Arg.: Martin Lores

### “Bertoko musikari eta taldeei beraien lanak aurkezteko aukera ematea da Jazzez Blai-ren helburu nagusietako bat”

**Jazzez Blai festibalaren bigarren edizioa egin berri da Deban eta estilo ezberdineko bost kontzertu izan dira guztira hilabete honetan; jaialdiaz harago ere, beste zenbait ekimenetan ere presente egon dira aurten jazz doinuak. Hori guztia aitzakia hartuta, antolakuntza lanetan buru-belarri aritu den Josu Salegirengara jo du *Berriketan*-ek. Jaialdiaz ez ezik beste hainbat kontuz ere hitz egin dugu musikari debarrarekin.**

Udako Jazzaldiaren bigarren edizioa da aurtengoa. Zer nolako egitaraua aurkeztu da egunotan? Laburbilduko zeniguke hitz gutxitan?

Pandemia dela eta, aurten jaialdia formatu txikiagoan egin behar izan dugu. Guztira bost kontzertu izan dira hiru egunetan zehar. Uztailaren 7an, Debako Gazte Asanbladarekin elkarlanean, jaialdiaren aurrerapen bat izan genuen Gaztetxean. The Blues Proyect eta blues tailerreko partaideok blues kontzertu bat eta jam saio bat eskaini genuen. Egitarau nagusia, berriz, asteburuko kontzertuek osatu zuten. 2020ko neguan ospatutako Banden Lehiako hiru talde hautatuak (Mazzedonia, Irati Bilbao Quintet eta No-Land Trio) eta Manixa Jazz Choir izan ditugu zumardiko karpan.

**Euskal Herriko protagonistak izan dira oholtzan, baita emakumezko ugari ere, ezta?**

Hala da, Jazzez Blairen helburu nagusietako bat Debako eta Euskal Herriko musikari eta taldeei beraien lanak aurkezteko aukera ematea da; Banden Lehia edo blues tailerra, adibidez, ideia horrekin sortu dira. Bestalde, edizio honetan ema-

kume askok hartu dute parte eta alde horretatik oso pozik gaude, jazz munduan ez baita ohikoena izaten. Uste dut garrantzitsua dela datozen belaunaldietako neska musikariek erreferentziak izateko eta jazz mundura erakartzeko.

**Nolako izan da publikoaren harrera?**

Uste baino jende gutxiago ibili da zumardiko karpan, agian pandemiagatik, karpa aurten itxia zelako, edo auskalo. Hala ere, kontzertu bakoitzean oso giro ona sortu da eta entzuleen jarrera bikaina izan da. Orokorrean publikoari gustatu zaiola uste dut.

**Proposamen berritzailea da jazzarena, herri honetan behintzat. Nolatan sortu zen Deba jazzez blaitzeko ideia?**

Idea hori aspalditik neukan buruan bueltaka. Duela bi urte erabaki nuen pausoa ematea; Deban jazz musikariak sortzen ari zirela ikusten nuen, bakoitza bere proiektuekin, Gaztetxean blues tailer bat antolatu genuen herritarrentzat eta talde polita osatzen ari zen. Musika eskolan jazz taldea edo konboa sortu berri zen, Debako Banda, Debrass Band... Jazz jaialdi bat egiteko musikariak Deban bertan zeuden.

Jazzaldiaz gain, beste ekimen batzuk ere egin dira azken urteotan geurean, hala nola, Banden Lehia iazko neguan, Iturrian Jazz edo Gaztetxeko blues tailerra... Zelan baloratzen dituzu saio horiek? Gustura emaitzarekin?

Ekimen horiek herriarentzat oso positiboak iruditzen zaizkit. Banden Lehiak harrera bikaina eduki zuen eta aurkeztutako taldeek oso maila ona erakutsi zuten gainera. Iturrian Jazz ipuin kontalarietara eta beste hainbat lagunekin elkarlanean egin genuen eta emanaldi polita sortu genuela uste dut, ezohiko formatu batean gainera. Aurtengo blues tailerrean ere oso gustura aritu gara eta kontzertua ondo joan da. Aurten, adibidez, orain dela bi urteko blues tailerretik sortutako The Blues Proyect talde debarrak bere lehen kontzertua jo du.

**Era berean, aurten Iturri Ondoan egitasmoan ere presente daude jazz doinuak, ezta?**

Bai, Begiradak ekitaldian parte hartu dut Miguel Laguna gitarristarekin batera. Irudi eta testu batzuei musika jarri diegu, besteak beste. Inprobisazioak pisu handia izan du musikarion aldetik.



## “Asko gustatzen zait nire lana; batez ere ikasleen eboluzioa, eta beraien helburuak lortzen dituztela ikustea”



Arg.: Martin Lores

**Eraman dezagun elkarrizketa plano pertsonalago batera... Ezagutzen ez zaituztenentzat, zein da Josu Salegi?**

36 urte dauzkat, Deban jaioa naiz eta bertan bizi naiz nire neskalagun eta txakurrarekin. Musikaria eta saxofonista naiz eta Deba eta Lekeitioko musika-eskoletan irakasle nabil lanean, ahal den heinean kontzertuak eskaintzeaz gain. Afizio nabarmenena musika da, kontzertuak ematea, lagunekin entseatzeta etab. Baita nire gustuko musikariak entzutea ere, zuzenean ahal bada hobeto. Bestalde landareak ere asko gustatzen zaizkit, bonsai-ak batez ere.

**Ibilbide luzea duzu musika munduan; Debako Musika Bandan hasi eta Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegira egin zenuen urratsa. Nola gertatu zen trantsizio hori?**

Ingeniaritza informatikoa ikasten nengoan, baina ez zitzaidan gustatzen eta musikak asko erakartzen ninduen; bandan jotzen nuen eta asko gustatzen zitzaidan. Informatika laga eta musika ikasketak hastea erabaki nuen. Francisco Escudero Donostiako kontserbatoriotik pasa nintzen bi urtez eta gradu profesionala atera nuen. Ondoren, bi urtez Musikenen jazz ikasteko probak egin nituen baina ez ninduten hartu. 3. saiakeran lortu nuen sartzeta, eta lau urtez ikasten aritu ostean, 2016an bukatu nituen goi mailako ikasketak.

**Hasieratik izan zenuen argi jazz munduan amaituko zenuela?**

Momenturen batean zalantzak izan nituen, baina baietz esango dut! Txikitatik gustatu izan zait jazza, eta zenbat eta gehiago ulertu orduan eta gehiago gustatzen zitzaidan.

**Irakasle zabilta, besteak beste, Debako Musika Eskolan. Gustura?**

Bai, nire lana asko gustatzen zait; batez ere ikasleen eboluzioa ikustea, eta beraien helburuak lortzen dituztela konturatzea. Bi eskoletan oso gustura nago eta erlazio ona daukat bai ikasleekin, bai beste irakasleekin.

**Inprobisaziotik asko du orohar jazzak. Zenbateko garrantzia du (inprobisazioak) dozentzian, adibidez?**

Orain dela urte gutxi arte, inguruko kontserbatorioetan ez zen inprobisaziorik irakasten. Pixkanaka goi mailako ikasketetan musika modernoa ikasteko aukera ematen hasi ziren, eta gero erdi mailara eta musika eskola batzuetara zabaltzen joan da. Adibidez, Inprobisazioa eta Konbo irakasgaiak irakasten ditut Deba eta Lekeitioko musika eskoletan; irakasgai horietan inprobisatu egiten da.

**Zertan zabilta zehazki gaur egun? Zein proiektu dituzu eskuen artean?**

Pandemiak eragin handia izan du musikariengan, ez baitugu jotzeko eta entseatzeko aukerarik izan. Neuzkan proiektu guztiak desagertzen joan dira pixkanaka. Orain, horietako proiektu bat (Xahu izenekoa) berpizten gabiltza, entseatzeta hasi gara eta baita konposatzeta ere, baina oraingoz kontzertu bakarra daukagu. Bestalde, disko bat grabatu nahi nuke, ea posible den!

**Zurea da azken hitza, Josu. Aipatu ez dugun zerbait nabarmendu nahiko zenuke?**

Ea denon artean kulturari bultzada txiki bat ematen diogun. Eskerrik asko elkarrizketarengatik, baita egiten duzuen lanarengatik ere.

## Estilo eta formatu anitzeko 17 kultur ekimen Gure Giro-n

Bertsoa, zinema, musika, literatura, antzerkia, irteera gidatuak... Hamazpi hitzordu hartzen ditu bere baitan aurreko lehenbizikoz antolatuta den Gure Giro programak. Kultur Elkarteak, Debako Gazte Asanblada, Jazzez Blai, Debadecine eta Zuhatza Euskara Elkarteak elkarlanean osatutako egitaraua du ardatz egitasmoak eta abuztuaren 1ean emango zaio amaiera.

“Ziurgabetasuna nagusi den egoera honetan, egitasmoak aurrera eramateko zailtasunak ugaritu direnez, eragileen arteko elkarlana sustatu eta kultur eszena berpizteko helburuarekin antolatuta dugu Gure Giro”, azaldu dute programaren antolatzaileek.

Hori hala, diziplina, formatu eta estilo ezberdineko ekimen sorta aberatsa antolatuta da egitarauaren baitan. Uztailaren 3an Zuhatza elkartearen aldeko bertso saioak eman zion hasiera programari, eta haren atzetik etorri dira ondoko hauek ere: Udako Zinemaren bi emanaldi, Asteazken Akustikoetan antolatutako bi kontzertu, Goizane Aizpuruaren “Izarak” liburuaren aurkezpena, Alex Turrillas Aranzetak gidatutako bisita Santa Maria elizara, “Satiro” antzerki emanaldia edota Jazzez Blai festibala.

Oraindik ere ez da bukatu, ordea, Gure Giro. Asteazken Akustikoen baitan, adibidez, Fito Skins taldea arituko da uztailaren 21ean, 22:00etan, Gaztetxean. Eta, hilaren 28an, Auzi Taldea (leku eta ordu berean).

Uztailaren 24an irteera gidatua egingo da Sasiolako komentura, 10:00etan, Turrillasek gidatuta. Bestetik, uztailaren 25ean “Ane” filma proiektatuko da karpian, 22:00etan, eta abuztuaren 1ean, leku eta ordu berean, “La odisea de los Giles”.



Deba-Itziar

# BIRA



## EKAINEKO BIRA | SARIDUNAK



**Motxila:**  
Irati Baroja

**Poltsa:**  
Manex Astigarraga



Kaiet Aristi  
Marijose Aldalur  
Mari Mar Cabeza  
Maddi Ciaran  
Begoña Aizpurua

Amaia Arozena  
Jone Txurruka  
Mirian Arrizabalaga  
Antton Aizpurua  
Alots Monllor

\*Produktuak 2021/08/15 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

## UZTAILEKO BIRA:



**1. Zein izenburu du Nerea Loiola idazleak kaleratutako azken liburua?**



**2. Zein familiarena da Santa Maria elizako kapera hau?**

- A) Irarrazabal
- B) Sasiola
- D) Zubeltzu
- E) Agirre



**3. Zein urtetan irabazi zuen Gipuzkoako Batel Txapelketa Debako Arraun Taldeak?**



**6. Zein da aurtengo Donostiako Musika Hamabostaldiko kartelaren egilea?**

- A) Alex Turrillas
- B) Nere Oria
- D) Ibon Aranberri
- E) Juan Luis Baroja-Collet



**5. Zein da Kevin Garcia rap abeslariaren izen artistikoa?**



**6. Zein zuhaitzenak dira ezkerreko argazkiko loreak?**

- A) Elorri zuria
- B) Akazia
- D) Hagina
- E) Gereziandoa

## PARTE HARTZEKO:

[www.labor.eus/BIRA\\_uztaila](http://www.labor.eus/BIRA_uztaila)

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

**Martin Sukia** artisauak egindako  
**egurrezko kutxa 1**  
**larruzko poltsa 1**  
banatuko dira

**Martin Sukia** artisauak egindako  
**larruzko poltsa 1**  
banatuko da

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **abuztuaren 7a**

Irabazleen izenak abuztuko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**



## Goizane Aizpurua: “Nahiz eta eleberria izan, liburuak badu begirada poetikotik dezente; hortik natorrela uste baitut”

**Bigarren liburua duen *Izarak*-ek Eusko Jaurlaritzaren sorkuntza-beka bat jaso zuen 2019an, eta berriki ikusi du argia. Lehenengo eleberri luzea du hau Goizane Aizpurua Ibañezek (Deba, 1984). Aurrez, poema bilduma, hainbat ipuin eta bi antzerki sortu zituen, eta kondaira-liburu bat itzuli.**

“*Afasia Airlines*” poema liburuaren ostean lehenengo eleberria. Zer aurkituko dugu liburu honetan, Goizane?

“*Izarak*” en orriak pasa heinean poesia kutsua aurkitzen dela esango nuke. Nahiz eta eleberri-narrazioa izan, badu begirada poetikotik dezente; begirada horretatik natorrela uste baitut.

Zergatik “*Izarak*”? Zer sinbolizatzen dute izarek lan honetan?

Ohea janzten dute, eta oheak gure bizitzan uste duguna baino pisu handiagoa du: lo egiteko tokia da, amestekoa, atsedenerakoa, jolaserakoa, intimitaterakoa... eta ohea izarek janzten dute. Egoera horietan gure azala ukitzen dutenak izarek dira. Eleberrian, erreferentzia dezente egiten zaie izareei.

Norbere barrenetik egindako bidaia modura deskribatzen zenuen orain bi urte ateratako poema bilduma. Eta “*Izarak*”?


Honetan ere badago barne-bidaia bat, protagonistaren bizipenen bitartez, urtarotetan banaturik. Urtarotik urtarora protagonistaren aldatzea eta erabakiak aldatzen doaz, badago prozesu bat, eraldaketa bat. Harreman eta hausturek zeharkatuko dute protagonista.

*Berriketan*-en zutabeak idatzi, ipuin-lehiaketak irabazi..., baina eleberririk ez zenuen orain arte. Nola joan da laburretik luzerako jauzia? Eta poesiatik narrazioerako?

Erronkatzat hartu nuen. Poesiatik nator, sentazioetatik. Eleberri batek mugimendua behar du, akzioa, istorioak eraldatu egin behar du. Hasieran ez nekien gai izango ote nintzen. Ipuin labur bat sortuta, atzean istorio bat egon zitekeela iruditu eta hura eraikitzeke grina sortu zitzaidan. Baina gauza asko izan behar ziren kontuan (pertsonaien sorrera, izaera, egoera eta espazioak eraikitzea...), beraz, jolastzat hartu eta gozatzea izan nuen helburu. Salto handia izan da guztia biribiltzea. Poesia ez da hain zurruna, edo ez ditu lege horiek jarraitzen, askoz askeagoa da.

Beka bati esker idatzi; Alberdaniak argitaratu. Eta ibilbidea, zer moduz?

“*Afasia Airlines*”-en sariaren dirua idazketa-tailer bati eskaini nion. Hango ariketa batean sortu zen lehen kapitulua. Hariari tiraka hasi eta erdira-edo iristean, urtebetez aritu nintzela konturatu nintzen eta aurrera jarraitu ahal izateko sostengu ekonomiko



beharko nuela. Dossiera prestatu eta beka lortuta, sei hilabetez liburua sortzea izan nuen egiteko bakar. Errejistrazioan hasi nintzen argitaratzeko ideiarei bueltaka. Alberdaniaren baiezkotza jaso eta dena oso azkar joan da. Proiektua gustatu zitzaien hasieratik eta bi hilabetez prest zegoen argitaratzeko.

Aitor Oñederra lagunak egin dizu liburuaren azala.

Edera izan da! Aspalditik nahi genuen elkarrekin lan egin. Editoreari berehala eskatu nion azala lagun batek egitea. Aitorri liburuaren pasarteak pasa nizkion, buruan nuen ideia aipatu; berehala harrapatu zuen. Bisualki oso ondo ulertzen dugu elkar. Liburuaren atmosfera bikain transmititzen du azalak, barnekoa.

Hainbat ekimen artistikotan ikusi izan zaitugu (GOAZ antzerki taldean, *Begiradak*...). Artista edo plazandrea, zer zara?

*Kar-kar-kar*. Urte askoan entzun izan dut “artista, pobrea ziur” eta hori nolabaiteko traba izan dut. Gaur bai, artista naiz! Arte eta sorkuntzari oso lotua bizi naiz, sortzen gozatzen dut eta besteen sorkuntzak zein nireak partekatzen.

“*Afasia Airlines*”-engatik Rafa Bravorekin batera saritu zintuzten Pasaiaiko lehiaketan. Bravok eta Nerea Loiolak liburu bana aurkeztu dute orain gutxi. Literaturarako afizioa bada herrian...

Herri txikia gara, baina idazteko afizioa baldin badago irakurtzekoa ere badagoela esango nuke, eta hori oso garrantzitsua da; lagun edo ezagunen eskutik jendea liburuetara hurbiltzea ere bai.

Bukatzeko besterik esan nahiko zeniguke, Goizane?

Eskerrak eman nahi nizkioke *Berriketan*-i, zuen laguntzaren bitartez ere eutsi diodalako afizioari, euskaraz irakurtzea bultzatzen duzuelako, eta sormen-lanak herritarrei hurbiltzen dizkiezuelako.



## Herritarrentzako bilera irekia egin du Zuhatzak

Azken hilabeteotako dinamikarekin jarraituz, Zuhatza Euskara Elkarteak herritarrentzako bilera egin zuen uztailaren 1ean, Kultur Elkartearen. Egun bizi duen egoera ekonomiko zailaren berri zuzenean eman, egon litezkeen zalantzak argitu eta iritzi edo ekarpen berriak jasotzeko helburuarekin deitu zuen batzarra; helburu berarekin, aurrez herriko 19 eragile eta alderdi politikorekin ere bildu dira elkarte-ko zuzendaritzako kideak.



## Giro ederra euskara elkartearen alde antolatutako bertso saioan



130 bat lagun bildu ziren uztailaren 3an Zuhatza Euskara Elkartearen alde zuzendutako bertso saioan. Oihana Iguaran, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolariak aritu ziren oholtzan, Manex Astigarragak gai-jartzaile lanetan ziharduela. Giro ederra sortu zen karpan, eta protagonistek txalo-zaparrada beroa jaso zuten bertaratu zirengandik.

Era berean, elkarteak egunean zehar saldutako errifan zozketa ere bertso saioan bertan egin zen. Deban gelditu zen saria; Maria Isabel Allikak erosi zuen boleto irabazlea eta hark eraman zuen zazpi kiloko urdaiazpiko ederra etxera.

## Martxa onean doaz Kolorez Blai udalekuak!

Uztailean zehar, kantuan eta dantzan gabilta Kolorez Blai euskal udalekuetako haur eta begiraleok. Hilabetea bi txandatan banatuta, guztira 174 haur ari dira parte hartzen eta 17 begiralek osatzen dugu taldea. Berrogeialdian ospatu ezin izan ziren jaiak ospatzen ari gara, betiere segurtasun neurriak errespetatuz. Festa ezberdinak ezagutu eta birgogoratzen ari gara. Zuhatza Kolore Anitz taldeak kudeatzen du ekimena.

Aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, lehen txandan bukatzearen genbiltzan; hortaz, abuztuko alean izango duzue berri gehiago, urtero legez, argazki bilduma osatzen saiatuko baita *Berriketan*. Hala ere, egunero ari gara bideo eta argazkiak igotzen gure sare sozialetara. Kaleetan gora eta behera, festarik festa ikusiko gaituzue, jolasean, dantzan eta kantu-kantari!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*



EKAINEKO  
**ZOZKETA**  
IRABAZLEA:  
GOTZONE  
AIZPURUA  
ERRIGORAKO  
PRODUKTU SORTA

Zuhatza inve. deba euskara elkarte

UZTAILEKO  
**ZOZKETA**  
ZUHATZAKO BAZKIDEEN ARTEAN  
DEBASKET  
SASKIBALOI KLUBAREN  
MATERIALA  
+  
SKABIDEAN  
"IZAERA" - DISKOA

ZOZKETA EGUNA:  
UZTAILAK 30, OSTIRALA  
FACEBOOK BIDEZ

Zuhatza inve. deba euskara elkarte



# EUSKERAZ BAGERA!

## ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



### AINTZANE ALTZIBAR

67 urte

Hasiera-hasieratik naiz Zuhatzako bazkide, beti ibili izan bainaiz euskalgintzaren munduan. Herria euskal kulturaren inguruan girotzeko beharra nabarmen ikusten dut; argi dago, bestalde, bide horretan aurrerapauso handia eman dela herrian. Umeei dagokionez, Kolore Anitzekin aisialdian egiten den lana pozgarria da benetan, bereziki udan zaila izaten baita askotan umeek eskolaz kanpo euskaraz jolastea. Aldizkaria, berriz, oso gustura irakurtzen dut eta ikusten dut bazkide ez direnek ere ze gustura hartzen duten kaleratzen denean, irakurterraza da eta oso entretenigarria.

### BITTOR ARIZMENDIARRIETA

62 urte

Euskara maite dudalako. Euskaraz pentsatzen dut eta euskaraz egiten dut amets. Gaur egun, belaunaldi berrien bultzadagatik euskara gure herrian zabaltzen ari dela nabari bada ere, Zuhatza bezalako tresnak behar dira.

Sukaldeko lana egiten duzuen Zuhatzako langile eta boluntarioek **ahalegin bat**; paper eta tintaren usainarekin batera, *Berriketan* aldizkaria orriz orri fisikoki eraiki eta paperean hainbat artikulua eta zutabe koloreztatzean, **beste ahalegin bat**. Eta, horrela, pausoz pauso, lan mordoa dago, eta **ahalegin gehiago**. Euskararik gabeko Euskal Herririk ez dago. Mila esker Zuhatzari!



### EMILI SUKIA

37 urte

Zergatik naizen bazkide?

Gutziz aberasgarria dela iruditzen zaidalako; herriarentzat, gure hizkuntzarentzat eta nire kasuan, behinik behin, arlo pertsonalean ere bai. Gainera, esan beharra dut, ametsak posible eta errealitate bihurtzen ere lagundu didala. Ikaragarria eta eskertzekoa delako Zuhatza Euskara Elkarteko kideek egiten duten lana, eta gure altxorra den hizkuntza babesten jarraitu behar dugulako.

### IÑAKI SAGARNA

26 urte

Nire ustez, elkarterik gabe herriek ez dute ekintzarik eta, ekintzarik gabe, herri batek ez du bizitzarik. Zuhatzak herritar guztiontzako ekintza ezberdinak eskaintzearekin batera, ekintza horiek guztiak euskaraz egitea bermatzen du.

Ondorioz, Debako herriari hain beharrezkoa dugun mugimendua ahalbidetzeaz gain, euskararen arnasmune ere bada.

Horrexegatik naiz ni ere Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide.



## Haur eta gazteen euskararen erabilera. Blaitu bizipen positiboak euskaraz!

2020ko urte bukaeran ekin genion Apakinak taldetik familientzat euskara sustatzeko aholkuak luzatzeari. Ikastetxearen laguntzarekin, bideoak zabaldu genituen eta

gurasoei iritziak eta proposamenak helarazteko aukera eskaini. Erantzun ugari jaso ditugu, eta guretzat garrantzitsua da horiek kontuan izanda aritzea.

### ETA ZER DIOTE DEBAKO GURASOEK?

**Egiten dugunaren kontzientzia hartzea eta modu koherentean aritzea.**

Hizkuntzarekin lotuta dauden momentu ugari daude eguneroko jardunean; horri erreparatu gabe aritzen gara sarri. Konturatu gabe, mezu kontrajarriak ematen dizkiegu seme-alabei: denda batean gaztelaniaz eskatzean, lehen hitza euskaraz ez esatean, gurasoen artean gaztelaniaz egin baina haiei euskaraz egitean, komunikabide edo bestelako produktuetan erdarari euskarari baino leku gehiago ematean... Esaten dugunetik egiten dugunera salto handiegia dago sarri. Gurasook eredu gara eta hizkuntza-jokaeretan ere azti egotea oso garrantzitsua da.

**Eskolak ezin du dena egin.**

Hizkuntza bat ondo menperatzeko asko praktikatzea ezinbestekoa da. Eskolan pasatzen ez duten denboraren zati handia gure esku dago. Beraz, eskolaz kanpo ere euskara erabiltzeko une eta guneak bultzatu behar dira. Euskara gehiago eskaini behar diegu: inguru hurbilean edo lagunarteko harremanetan euskara gehiago erabiltzen lagundu, euskarazko bizipen positiboak eskaini,...

**Lagundu**

Euskaraz dakigun gurasook euskaraz egin eta ez dakiten gurasoei lagundu. Euskaraz jakin gabe ere asko egin dezaketela ulertarazi; seme-alaben motibazioan asko egin dezaketela adierazi eta bide horretan urratsak ematera animatu, dakiten


“apurra” erabiltzera gonbidatu...

Ekintzetan parte hartzeko zailtasunak izan ditzaketen umeei bidea erraztu.

Haur eta gazteei euskara erabiltzen lagundu. “Euskaraz egin!” esatetik egiten laguntzera pasa; eredu izan, euskarazko elkarrizketa asko sortu, euskara balio indartsuekin lotu,...

**Euskara egoki erabiltzea, kultur eskaintza handitzea eta kontsumo eredu a zabalitzea behar dugu.**

Hiru gai hauek garrantzitsuak direla aipatu da behin eta berriro gurasoen erantzunetan. Hemen ere adi egotea eta hirurek haur eta gazteen erabileran duten eraginaz jabetzea komeni da. Deban, bide horretan urratsak eman eta gehiago lantzea nahi dute guraso askok. Herrian zein etxean hiru gaiak indartu eta landu behar direla ohartarazi digute.



Apakin taldea irailean hasiko da berriz ere martxan. Gurasoen iritzi eta ekarpenei kasu egin, eta euskararen erabilera sustatzen jarraitu nahi dugu. Izan ere, gizartean bizitzeko eta, bizi ez ezik,

ongi bizitzeko ere beharko dute Debako haur eta gazteek euskara. Familiok badugu horretan guztian ardurarik. Udako opor-garaia momentu paregabea da bide horretan urratsak emateko. Ase ditzagun

gure txiki eta gazteen komunikazio-beharrak. Blaitu ditzagun, bada, oporraldiko bizipenik goxoenak euskaraz!

*Apakin Guraso Taldea*



**JOXEAN GALDONA  
AIZPURUA**

**HORTZ-SENDAGILEA**  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa



**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
**943 19 12 52**



## Euskal idazleen aipu lehiaketak baditu irabazleak Mendatan



Ikasturtea bukatzeaz zegoela, Mendatako ikasleek euskal idazleen aipu lehiaketan parte hartu zuten. Irabazleen kartelak ikastetxeko pasilloetan egongo dira, hurrengo belaunaldiak ikusteko moduan. Ea lekukoa hartzen duten beraiek ere.

Hona hemen irabazleak mailaz maila: 1A: Sara Amasorrain Totorica eta June Muguruza Antolin; 1B: Maya

Castillo Ormaetxea; 1C: Roke Altzibar Mancisidor; 2A: Ane Beristain Astorkia eta Uxue Etxeberria Arcelus; 2B: Lide Lobete Gonzalez; 2C: Ainhize Gonzalez Urkidi; 3A: Gadea Rodriguez Carracedo; 3B: Jon Etxeberria Sorazu; 3C: Sara Osa Azcoitia; 4A: Leire Acebes Lozano; 4B: Nora Ait Akki Furones, eta 4C: Ibai Perez Goikoetxea.

*Mendata BHiko Prentsa Tailerra*

## Iritzia

### Apustuak ohitura ala tortura?

Festa edo jai guztietan ikusten ditugu idi proben, pilota partiden edo beste hainbat kirolen apustuak edo taberna batean sartzean norbait txanpon-makina jokatzeko. Ikasturtean zehar, tutoretzako saio batean, horri buruzko dokumental bat ikusi genuen eta bertan, ludopatia (apustu eta jokoarekiko adikzioa) zuten pertsona batzuk elkarrizketatzen zituzten.

Asko harritu gintuen, izan ere, ez genuen espero horren adin gaztekoak hain goiz jolasten hasterik. Pentsatzen genuen pantaila berriekin ez genuela hori egiteko beharrik. Baina ez da horrela, Internetetik ere egin ditzaketelako apustuak, edota edozein joko edo aplikaziotan dirua sartu.

Festetan, adibidez, dibertitzeko jolasteak ez dio inori kalterik egiten eta, agian, zorteko bazaude dirua irabaz dezakezu. Baina apustuak maiz egiten badituzu, hasieran dena maldan gora doan arren, ostean maldan behera egingo duzu, hondoa jo arte.

Guri apustu egitea ez zaigu ondo iruditzen, baina batzuek betidanik egin den gauza bat, gure herriko ohitura bat dela esaten dute. Hala ere, ohitura izaten jarraitzea zilegi al da jendea kaltetuta irteten bada?

*Mendata BHiko Prentsa Tailerra*

## Herriko hiru gaztek ohorezko matrikula eskuratu dute Batxilergoan

Guztira sei izan dira aurten Batxilergoan, IES Elgoibar BHI institutuan, ohorezko matrikula lortu duten ikasleak, eta horietako hiru Debakoak direla jakinarazi dute ikastetxeko arduradunek. Alboko argazkian ageri dira espediente akademiko onena lortu duten gazteak: goian, ezkerretik eskuinera, Mireia Lili Gonzalez, Markel Garate Arriola eta Ibone Mancisidor Etcheverry; behean, ezkerretik eskuinera, Eider Itxaso Odriozola, June Eguren Gomez eta Olatz Alberdi Artolazabal -Lili, Mancisidor eta Itxaso dira debarrak-. Ekainaren 25ean banatu zituzten diplomak.



**UZTAILAK 23, OSTIRALA**

-10:00. **Bisita gidatua:** Flysch Beltza. Informazio gehiago: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).  
-19:00. **Iturri Ondoan.** "Ez dok Ero", karpan.  
-22:00. **Kontzertua:** Musika Banda eta Kirolegia elkarlanean, Euskal Jolasen.

**UZTAILAK 24, LARUNBATA**

-10:00. **Txangoa** Sasiolako komentura, Plaza Zaharretik (izen-ematea: 688696805).  
-18:30. **Kontzertuak:** Debarock Kolektiboaren eskutik, zumardiko karpan.

**UZTAILAK 25, IGANDEA**

-18:30. **Bisita gidatua:** Debatik Zumaiara itsasontziz. Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).  
-18:30. **Bizi-bizi zirkua.** Kiki, Koko eta Moko, Itziarko frontoi zaharrea (943 199255).  
-22:00. **Udako zinema.** "Ane", Kultur Elkarteko plazan; euriaz, zumardiko karpan.

**UZTAILAK 28, ASTEAZKENA**

-22:00. **Asteazken akustikoak.** Auzi taldea, Debako Gaztetxean.

**UZTAILAK 30, OSTIRALA**

-12:00. **Bisita gidatua:** Gotikoaren altxorra.

Informazio gehiago: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

-22:00. **Iturri Ondoan.** Willis Drummond musika taldearen kontzertua.

**UZTAILAK 31, LARUNBATA**

-11:00. **Bisita gidatua:** Lastur familian.  
-11:30. **Bisita gidatua:** Debatik Zumaiara itsasontziz. Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**ABUZTUAK 1, IGANDEA**

-22:00. **Udako zinema.** "La odisea de los giles". Kultur Elkarteko plazan; euriaz, karpan.

**ABUZTUAK 5, OSTEGUNA**

-20:00. **Udako kontzertua,** H. Hauskeller (panen flauta)/S. Surin (organoa), elizan.

**ABUZTUAK 7, LARUNBATA**

-**Merkatu txikia,** paseo estalian.  
-**Pala txapelketa,** Aldats pilotalekuan (ordua zehazteke aldizkaria argitaratzean).  
-23:00. **Kontzertua:** Mikel Urdangarin, zumardiko karpan.

**ABUZTUAK 12, OSTEGUNA**

-20:00. **Udako kontzertua.** J. Goikoetxea eta Euskamerata; "Itsas urradurak", elizan.

**Erakusketak elizako klaustroan**

-Ramon Zuriarrain artistaren lanak ikusgai uztailean eta abuztuan elizako klaustroan. Uztailean asteartetik igandera, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Abuztuan, egunero, elizaren ordutegian.

**Ordutegi berezia liburutegian**

-Irailaren 6ra bitarte, Ostolaza liburutegiak udako ordutegia izango du. \*Liburutegi orokorra: astelehenerdik ostiralera (9:00-14:00); haur/gazte liburutegia (10:00-13:00).

**KZgunea**

KZguneak YouTubeko hitzaldiekien eta ikastaroekin jarraitzen du. Uztailean arratsaldez egongo da zabalik; abuztuan, berri, itxita egongo da. Informazioa: 943 023629 telefonoan edo [www.kzgunea.eu](http://www.kzgunea.eu)-en.

**Odola emateko deialdia**

Abuztuaren 6an (ostirala) odola emateko saioa egingo da Luzaron, 17:00etan. Aste horretan bertan 623 328 408 zenbakian hartu beharko da txanda (16:30etik 20:30era) edo WhatsApp-a bidaliz. Uda izan arren odol beharrak ez duela etenik gogorazi du taldeak.

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 26, 27, 28, 29.**  
**abuztuak 13, 14, 15.**

Burgoa Zuazo: **uztailak 30, 31.**  
**abuztuak 1, 9, 10, 11, 12.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:


ZALDUEGI: uztailak 24 eta 31

BURGOA ZUAZO: abuztuak 7 eta 14

**9:30 - 13:00**

**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/A2

**ITURLAN, S.L.**  
Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfnoa - Fax: 943 192 553  
[fontaneriaiturlan@iturlan.com](mailto:fontaneriaiturlan@iturlan.com)



**Janire & Maitane**  
ilepaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | [www.janiretamaitane.com](http://www.janiretamaitane.com)



LIZ.-ZK.: 3

**TaxiAlain Deba**

WiFi

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

**ieraenea**  
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

**k**  
kutxabank

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guzian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA**  
Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**adats**

**ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA**  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

**ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU**  
Behoko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45

[www.facebook.com/adatsileak](https://www.facebook.com/adatsileak)  
 @adatsileak

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

**urlo**

**SERVICIOS INMOBILIARIOS**  
**HIGIEZINEN ZERBITZUAK**

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**API**  
Nº. 379

Higiezinaren Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezinaren Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

**sasoi**  
iko

ekodenda,  
dieta, dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [sasoi@hotmail.com](mailto:sasoi@hotmail.com)

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



# DOITASUNA MEKANIZAZIOAN; KONPROMISOA KOMUNITATEAN

Zehaztasun handiko mekanizazioan erreferente izateaz gain, Goimekek inguruarekiko konpromiso estua ere badauka. Besteak beste, ongizatea eta osasuna, garapenerako kooperazioa, gizarte-inklusioa, ingurumena, hezkuntza, kirola, euskara eta kultura ekimenak sustatzen ditu instalakuntzak dituen ingurune gertuan.